

Topaketak- Encuentros V: “Donostia eta bere kultur proiektuak” izeneko jardunaldiek harrera bikaina izan dute



Donostiako Plan Estrategikoak, Donostiako Udalak eta Donostia Kulturak antolatutako jardunaldi hauetan, egungo eta etorkizuneko Donostiarako hiru azpiegitura nagusi jarri dira mahai gainean: San Telmo Museoa birgaitzea eta zabaltzea, Victoria Eugenia Antzokia berritzea eta Tabacalera Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa. Bertan izan dira, halaber, Bartzelonako, Karlsruhe-ko eta York-eko kultur ekipamendu garrantzitsuetako arduradunak.

Donostiako Plan Estrategikoaren helburu nagusietako bat kultur ekoizpenaren arloko sormena eta berrikuntza sustatzea da, eta jardunaldi hauen helburua gipuzkoar hiriburuaren kultur eredia eta bertako kultur proiektu nagusiak eztabaidatzea eta aztertzea izan da, nazioartean erreferentziazkoak diren beste zenbait hirietako adituen parte-hartzearekin.

Jardunaldiak *Topaketak- Encuentros* testuinguruan egin dira, hainbat eztabaida, mahai-inguru eta hitzaldi sektorial barne hartzen dituztenak. Hauek guztiek ezagutza partekatzea eta Donostiako proiektu estrategikoen garapenean aurrera egitea dute helburu, betiere hiriko eragile guztien arteko adostasunari eta lankidetzari bide emanez.

Eztabaidaguneari hasiera emateko, **Ramón Etxezarretak** (Donostiako Kultura zinegotziak) **“Donostiako kultur proiektuak eta kultur eredia”** aurkeztu du. Jarraian, hitza hartu dute **Miren Azkaratek** (Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburuak), **Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik** (Gipuzkoako ahaldu nagusiak) eta **Odón Elorzak** (Donostiako alkateak), administrazio bakoitzak sustatzen duen kultur politikaren ildo nagusiak azaltzeko.

Kafea hartu ondoan, **San Telmo, “Memoriaren eta Lurraldearen Museoa”** birgaitzearen eta zabaltzearen gaia hartu da hizpide. **Juan Velázquez** (EHU, Teledonosti) aritu da moderatzaile-lanetan, eta honakoak izan dira parte-hartzaileak: **Antoni Nicolau** (ICOMeko idazkaria eta Bartzelonako Historia Museoko zuzendaria), *Gaur Egungo Museoen Ikuspegiak* aritu dena; **Susana Soto** (San Telmo Museoko zuzendaria), *San Telmo Museoarekin Proiektuari buruzko Ikuspegiak* argibideak eman dituenak; eta **Victor Cagueo** (Kultura Ministerioako Estatu Museoen zuzendariorde nagusia), Estatuko azpiegituren errealitatea azaldu duena.

Arratsaldean, berriz, **Victoria Eugenia, “Hiriko Antzokia”** izan da eztabaidagai. **Ramón Etxezarretak** antzokiaren *Erabilera Proiektua* azaldu du, eta **Daniel Bates-ek**, York Theatre Royal-ekoak, *Ekipamendu Eszenikoak eta Hirian duten Egitekoa* aztertu du. Jarraian, mahai-inguru bat ireki da **Antón Azpitarte-k** (Donostia Kulturako zuzendariak) dinamizatuta, eta bertan parte hartu dutenak **Fligi Claverie** (Ballet Biarritzeko Mugaz Gaindiko Proiektuaren administratzaile-ordezkarria), **Norka Chiapuso** (Donostia Kulturaren Antzerki Unitateko zuzendaria), **Miguel Martín** (Jazz Jaialdiko zuzendaria) eta **Eduardo Clausen** (Donostiako Musika Kulturako Elkartekoa) izan dira. Osteguneko jardunaldiari amaiera emateko, **koketela eta zuzeneko musika** izan dira.

Maiatzaren 12an, ostiralean, **Tabacaleran, Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroan** jarri da arreta, **Joseph Ramonedak** (CCCB- Bartzelonako Kultura Garaikidearen Zentroko zuzendariak) *Kultur Instalazioen Etorrizuna* aurkeztu du, eta **Berhard Serexhe-k** (Media Museum ZKM-ko komunikazio-zuzendariak) *Karlsruhe Eskualdeko Kultur Adierazgarriaren Irudia*. Ondoren, **Josean Muñoz** (KGNZko zuzendariak) *Tabacalera Proiektua* azaldu du. Mahai-inguruan **Mitxel Ezquiaga** aritu da moderatzaile-lanetan, eta parte-hartzaileak **Kepa Korta** (Donostiako Plan Estrategikoaren zuzendaria), **Mikel Lejarza** (Grupo Árbol-eko kontseilari-ordezkarria), **Josean Muñoz** eta **Lourdes Fernández** (ARCOko zuzendaria) izan dira.

Jardunaldiei amaiera emateko, **Fuensanta Nieto** arkitektoak **“San Telmo Museorekin Proiektu Arkitektonikoa”** aurkeztu du.

Osteguna, maiatzaren 11a

DONOSTIARAKO PROIEKTUAK ETA KULTUR EREDUA

Sarrera: Ramón Etxezarreta (Donostiako Udaleko Kultura zinegotzia)



Ramón Etxezarretak, jardunaldiei hasiera emateko, gogoetarako gonbita luzatu du, hain justu ere, "Kulturaren hiri" gisa aurkezten den eta kultur borondate eta nortasun garbia duen hiri bateko 3 proiektu handiren inguruan: San Telmo, gure lurraldearen historia eta oroimena interpretatzen lagundu beharko ligukeen museoa; Victoria Eugenia, arte eszenikoei loturiko kultur ekipamendu gisa berritu beharko litzatekeen antzoki garrantzitsua, ez bakarrik Donostiarako, baita Gipuzkoarako eta EAerako ere; eta KGNZ-Tabacalera, garai berrietara egokitutako diziplina anitzeko zentroaren aldeko apustua, erreferentziazkoa eta kanpo-trukerako baliagarria. Jardunaldi hauen garrantzia baloratu du, hiriaren etorkizunari buruz pentsatzeko gonbita luzatu baitute, eta ezer egin aurretik gauzak pentsatzea eta ongi pentsatzea garrantzitsua baita.



Parte-hartzaileak:

Miren Azkarate (Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua)

Miren Azkaratek nor garen eta zein norabide hartu nahi dugun zehaztearen garrantzia hartu du hizpide, baita erakunde publiko eta pribatuen arteko baterako lanaren bidez aurrera egitearen garrantzia ere. Proiektuak proposatzerakoan, garrantzitsua da Donostia bere zentzurik zabalenean ulertzea, Gipuzkoaren gainerakoarekin erlazioan, Bidasoaren muga gainditu eta Baionaraino. Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoko hirien arteko gertutasuna hartu behar da aintzat, eta hortaz, baita osagarritasunaren funtzioa ere, 3 lurraldeetara iritsi ahal izateko.

Azpiegituren eta ekipamenduen planak "kultur sare" bat jasotzen du. Aipaturikoa osagarritasunean oinarritzen da, etorkizunean europar testuinguruan sortuko diren erronkei hobeto erantzun ahal izateko eta gure mugetatik kanpo ere erreferente izateko. Horrenbestez, proiektu nazionaleri ematen zaie lehentasuna, eta Donostiako kultur proiektuak hiru lurraldeen multzoan sartzen dira.

Aipatu du orain dela 5 urte sinatu zutela Eusko Jaurlaritzak, Foru Aldundiak eta Udalak Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentro berria- Tabacalera gauzatzeko akordioa. Eusko Jaurlaritzak erabaki zuen San Telmo Museorako bideratutako finantziazioa Tabacalerari ematea (3,5 milioi euro), zentro hau nabarmendu egin behar baita tokikoaren eta orokorraren arteko erlazioan ageri duen berezitasunagatik, eta erreferente izan behar

baitu Euskadin, Estatuan zein Europan. "Euskadiko Liburutegi Nazionala" Tabacalera kokatzea aztergai den proiektua dela esan du.

Gogorarazi du, halaber, jardunaldi hauetan hizpide diren hiru ekipamenduez gain, badirela ahaztu ezinezko beste batzuk ere, adibidez Euskadiko Orkestra Sinfonikoa, EITB, Musikene edo Akuarioa.

Joxe Joan Gonzalez de Txabbarri (Gipuzkoako Diputatu Nagusia)

Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik (Gipuzkoako ahaldun nagusiak) Aldundiaren kultur kudeaketako proiektuak gogoratuz eman dio hasiera aurkezpenari, hala nola erreferentzia-zentroak (Koldo Mitxelena, Arteleku, Santa Teresaren Museoa edo Ontzi Museoa), eta gehitu du Aldundiak 13 milioi euro banatu dituela beka-programetan, diru-laguntzetan eta kulturaren, kirolaren eta hizkuntza-normalizazioaren esparruko laguntzetan.

Donostia kultur hiriaren eredu gisa aurkeztu du, hurbiltasunagatiko zerbitzu-hiri izatetik etengabeko kultur jarduerak bereiziko hiri erreferente izatera igarotzeko erronkarekin. Gainera, definizio berria eman beharko zaie abian dauden proiektuei (Koldo Mitxelena, Arteleku eta abar), Tabacalera, Victoria Eugenia eta San Telmo abian jarri ostean. E-gipuzkoa programa ere azpimarratu du; sarean lan egiteko helburua eta kultur osagai garbia duen programa. erakunde arteko lankidetzaren beharrezkoa dela baieztatu du, baldin eta proiektuak aurrera atera nahi badira, nork bere erantzukizunak bere gain hartuz.

Odón Elorza (Donostiako alkatea)

Alkateak Donostia "kulturaren hiria" dela azpimarratu du, kultura Donostiarako oinarrizko proiektu estrategikoa dela iritziz, hiriko eragileen adostasunarekin gauzatutako eta sustatu beharreko proiektuak zehazten dituen Donostiako Plan Estrategikoaren dokumentuan jasotzen den bezala. Donostia kultur tradizio handiko hiria bada ere, nazioarteko jaialdi garrantzitsuekin eta auzoetako kultur etxeekin, ez du maila handiko kultur ekipamendurik. Ez du maila internazionalerako berrikuntza- eta erakarpen-alderdirik. Autokritikoak izan behar dugu eta ikuspegi handiko diskurtsoa garatu behar dugu, kultur berrikuntza eta kalitatea sustatzeari dagokionez. Horregatik, kultur ekipamenduetako hutsunea bete nahi da hirirako garrantzitsuak izango diren 3 proiekturen bidez: Victoria Eugenia, San Telmo eta Tabacalera.

Victoria Eugenia antzokia birgaitzeko lanak amaitutakoan, 21 milioi euroko inbertsioa eginda, arte eszenikoetarako maila goreneko ekipamendu bilakatuko da, Euskadiko onena, Arriaga Antzokiarekin batera. Aipatu du harremanak mantendu beharko lituzkeela Iparraldeko taldeekin, esate baterako Ballet Biarritzekin. Estatuak ia 9 milioi jartzen ditu, eta

Odón Elorzak beste euskal erakunde batzuen laguntza eskatu du inbertsio garesti horri aurre egin ahal izateko, jarduerak antolatzeko, mantentze-lanetarako eta abar.

San Telmo Donostian "gainditzeke dagoen irakasgaia" dela adierazi du, eta hiriak eta erakundeek onartutako museografia-proiektutzat aurkeztu du, museoaren beraren historia ere erakargarria baita. Alderdi arkitektonikoa birgaitu behar da, eta Gipuzkoako zein Euskal Herriko museo nagusietako bat bilakatu behar da, Bilboko Arte Ederren Museoa bezala. Arte ederren osagarritzat etnografia eta arkeologia izango ditu, baita berezko duen berezitasuna ere, eta Euskal Herriko oroimenaren garapen gisa aurkeztuko da. San Telmo aurrera ateratzeko, 24 milioi euro behar dira, eta horregatik, laguntza eskatu dio berriz ere Eusko Jaurlaritzari.

Azkenik, Tabacalera erronka garrantzitsua dela esan du, irudiaren kultura garatu behar duena eta goi mailako irakasgai motaren bat eskaini behar duena esparru honetan. Tabacalera hiru administrazioen finantziazioa izan du. Bakoitzak heren bateko ekarpena egin du, eta abian da jada, ardatz estrategikoak zehazten ari den talde batekin, erakunde mailako adostasun sendoarekin eta bermaturiko etorkizunarekin.

SAN TELMO, OROIMENAREN ETA LURRALDEAREN MUSEOA

Kafearen ondoren, **San Telmo**, “**Oroimenaren eta Lurraldearen Museoa**” birgaitzeko eta zabaltzeko gaia eztabaidatu da. **Antoni Nicolau**, **Susana Soto** eta **Victor Cageau**-ek aurkezpenak egin dituzte, eta ondoren eztabaidari egin zaio tarte **Juan Velázquez**-ek (EHU, Teledonosti) dinamizatuta.



Antoni Nicolau, Susana Soto eta Victor Cageau

Antoni Nicolau (ICOMeko zuzendaria eta Bartzelonako Historia Museoko zuzendaria)

Nicolau-k museoen izaera historikoaren eta aldi berean aldakorraren garrantzia azpimarratu du, gizartearen aldaketen arabera berritu eta egokitu behar izaten baitira.

Ondarea ez da berez existitzen, ez da ondasun hautemangarria, ondarea sortu egiten da, gizarteok sortzen dugu, eta museoek objektualizatu, kontserbatu eta zabaldu egiten dute ondare ez-hautemangarri hori. Museo nazional handiek Estatu-Nazioen printzipio ideologiko nagusien oinarriak finkatu izan dituztela kritikatu izan da, Estatuaren ondasunak pilatuz eta norabide bakarreko garapen “ahistoriko” eta hegemonikoa ezartzen lagunduz.

Horregatik, gaur egun museoek koherenteak izan behar dute etengabe aldatzen ari den gizarte-ereduarekin, Castells edo Ulrich Beck-ek aipatzen duten bezala, zalantzak eta

arriskuak bereiziriko mundu berri batekin. Aldaketekin eta mugimendu demografikoekin, aldatu egiten dira nortasunaren paradigmak, eta "glokalitate" berria sortzen da: globalizazioaren, pentsamendu bakarraren eta Amerikako Estatu Batuen nagusitasunaren ondorioz, lokalismoak suspertzen dira, esentzialismo historikoetan oinarritzen diren nortasun bereziak, modernitatearen eta garapenaren ideien ondorengoak. Museoek etengabe aztertu behar dute beraien jarduna; ezin dira gauzak gordetze hutsera mugatu. Gizartearen aldaketetara egokitu behar dute, eta aldaketa horiek onartu behar dituzte, denboraren joanean aldatuz.

Politikaren arloan adostasuna beharrezkoa izaten bada ere, oso zaila izaten da, eta zenbaitetan baita arriskutsua ere, kulturaren arloan adostasunaz hitz egitea, pentsamendu hegemonikorantz eraman baikaitzake, sormena, aniztasuna eta ñabardurak galduz. Museoak gainera iragana, oraina eta etorkizuna hartu behar ditu barne, elkarrizketarako eta sorkuntzarako gune izan behar du, ausarta, baita gatazka-gune ere; pentsamendu bakar eta hegemonikoari aurre egin behar dio, nortasun-diskurtsoen izaera historikoa eta aldakorra erakutsiz eta aniztasunaren aberastasuna agertuz. Erakusketek ez dute iraunkorrak izan behar, berriro egin behar baitira aldian behin.

Nicolau-k, azkenik, museo baterako funtsezko 4 ezaugarri aipatu ditu, eta uste du San Telmo Museoa ari dela horiek betetzen: Entreenimendua (emozioa, interesa...), hezkuntza (ikuspegi kritikoa, balioak... sustatzea), esperientzia (eredu berritzaile gisa) eta gizarte-elkarrekintza (eztabaidarako, ideiak trukatzeko... gune).

Victor Cagiao (Kultura Ministerioko Estatu Museoetako zuzendari nagusia)

Victor Cagiao-k Estatuko azpiegituren errealitatea azaldu du, eta 1137 museo daude bertan: %67,7 publikoak, %30,6 pribatuak eta %1,7 mistoak. San Telmo museoa Espainiako Museo Sistemari sartzen da.

Aipatu du garrantzitsua dela museoak berak ez ezik museo horiek kokatzen diren eraikinak ere aldatzea. Museologia Plana azterketak eta ebaluazioak egiteko, erabakiak hartzeko, programak finkatzeko zein proiektuak gauzatzeko baliabidea da.

Susana Soto (San Telmo Museoko zuzendaria)

Azkenik, Susana Sotok San Telmo Museoaren proiektua aurkeztu du. Aipaturiko proiektua arkitektonikoa eta museologikoa da, eta aldaketa sakona eragingo du museoan, beronen definizioari eta helburuei dagokienez.

San Telmo XVI. mendeko domingotarren komentua da, eta Aranzadik eta Joxemiel Barandiaranek zeregin garrantzitsua bete zuten museoaren historian. Eraikina hiriaren historiako funtsezko erreferente bat da, eta Nieto eta Sobejano estudioak birgaituko du, hain justu ere, Udalak proposatutako ideia-lehiaketa batera aurkeztutako 29 taldeetatik irabazle irten zen taldeak.

Zergatik proiektu berri bat? Galdera honi erantzun ahal izateko, museoaren beraren historia berrikusi behar da. Museoa, izan ere, 1902. urtean kultur proiektu garrantzitsuetarako gune bilakatu zen, eta lehen euskal museo etnografikoa izan zen. Aitzitik, 60ko hamarkadan, krisiaren lehen zantzuak agertu ziren, baina ez zen inongo berrikuntza-ekimenik gauzatzera iritsi (60.,87., 92., 94. eta 2004. urteetan saiakerak egin baziren ere). Museoa, horrela, behin-behinekotasun egoeran mantendu da gaur egunera arte.

100 urte hauetan zehar, gizartea eta jendearen eskaera aldatu egin dira, eta museo hau berriro eta ondare- eta kultura-zentro bilakatzeko beharra sortu da, gure gizartearen testigantzak baloratuz. Gune hau gogoetarako eta nor bere ezaugarriak zein besteren aniztasuna ezagutzeko erabili nahi da. Baliabide honek hezkuntzaren, turismoaren, aisialdiaren eta kulturaren zerbitzura jardun behar du.

Museo berri hau ezinezkoa da birgaitze-lan arkitektonikorik egin ezean, pilaketa kolektibo desegokiak arazoak sortzen dituelako, sarbideak behar bezalakoak ez direlako eta tokiak hondaturik daudelako. Gainera, ez dago toki egokirik liburutegiak, tailerrak, erakusketa-aretoak eta abar kokatzeko. Museo berria "Mulhouse-ko Batzarrean" (1991) definitutako ildoan egin behar da, "gizartearen museo" gisa, hots, museoak gizartea oroitzeko duen balioa azpimarratuz. Zentzu honetan, garrantzitsua da gizartea interpretatzea (pentsamoldeak, balioak...), historia kontuan hartzea (ikuspegiak...), gaur egungo garaia irekirik egotea eta diziplina anitzeko ikuspegiak baliatzea.

San Telmok erakusketa iraunkor bat izango du (oroimen kolektiboaren gakoak arakatuko ditu: nortasun-zeinuak, *Elkarrizketak* erakusketa eta *Oroimenaren Arrastoak* erakusketa), baita aldi baterako erakusketak ere, eskaintza berritzen dela bermatzeko eta museoaren kultur dinamizazioa sustatzeko.

Oinarrizko proiektu arkitektonikoa entregatuta dago, eta aurki proiektu exekutiboa idatziko da aurrean bertan lehiaketara ateratzeko. Lana 2007. urte hasieran esleituko da, eta bi urte inguru iraungo duela pentsatzen da. Hortaz, 2009. urtearen erdialdera amaituko litzateke proiektua. 24 milioi euro inbertituko dira: Udala da proiektuaren buru, Kultura Ministerioak 8 milioi eman ditu, Eusko Jaurlaritzak milioi bat eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Irunen kokatutako Ondare Higikorren Zentroa utziko du biltegi gisa.

VICTORIA EUGENIA, "HIRIKO ANTZOKIA"

Daniel Bates (York Theatre Royal-eko zuzendaria)



York Theatre Royal-eko zuzendaria York hiriarri buruzko datu batzuk emanaz hasi da: Donostiaren antzeko hiria da biztanle-kopuruari dagokionez, 184.000ekin, eta horietatik 56.000 25 urtetik beherakoak dira eta 40.000 dira 60 urtetik gorakoak. 76 ikastetxe eta 26.000 ikasle ditu, 2 unibertsitate ditu 16.000 ikaslerekin, eta 4 milioi bisitari izaten du urtero (290£ko gastua egiten dutenak). York-en, 4 antzoki daude, 2 arte-galeria, 2 museo, 12 talde amateur, gazteentzako 3 antzoki eta abar. York Theatre Royal-ek 250 urteko historia du, 7 ekoizpen-etxea ditu, 5 ekoizpen-estudio, Gazte Antzerkiaren 4 ekoizpen-aste...

Bates-ek ikusle gazteak erakartzeko politika bat gauzatu du azken urteetan. Lankidetzeta-programak jarri ditu abian gazte-taldeekin, baita sarrera merkatzeko politika bat ere, antzerkiak zinemaren erdia balio dezan (3,5£ 25 urtetik beherakoentzat). Honela, antzerkiak 2001. urtean 9.000 bisita izan bazituen ere, gaur egun 25.000 izan ditu.

Instalazio edo jardueren artean aipatzekoak dira, esaterako, *Theatre Club-a*, emankizun sozialak antolatzen dituen eta aldi behin newsletter bat argitaratzen duena; *Youth Theatre-a*, 300 kiderekin eta 5-25 urte bitarteko publikoari zuzenduriko asteroko programa batekin, baita Europa mailako trukearekin ere; *Backstage Club-a*, Youth Theatre-ren ekoizpenetan backstage-ko laguntzaile gisa ikasteko interesa duten guztientzat, *Young writers*, idazle gazteei eskainitako saila, eta *Ambassadors*, antzezpeneen ondoko hitzaldi eta eztabaidetarako aukera ematen duen saila.

Bada hezkuntza-sail bat ere, ikastetxe eta hezkuntza-zentroekin lankidetzan aritzeko eta publiko berriaren prestakuntza sustatzeko. Baita antzerkiaren eta haurrentzako istorioen enbaxadore-lana egiten duten idazketa-tailerrak ere. *York Mentoring* (York-eko aholkulari) programan hartzen da parte, eta lanbide-ikasketei buruzko aholkularitza eskaintzen da.

Aurrera begira, tiketak saltzeko sistema berri bat sortu dute (abian jarri berria dute, eta dagoeneko tiketen %25 on-line erosten dira), baita web-orri berria ere. Gainera, eraikuntza zabaldu egin dute, eta taberna eta bestibulu berria egin dituzte, besteren artean.

Antzokiak York hiriari egin dion ekarpena honela labur daiteke: 7 milioi libera *evening economy*-ari, 2,6 milioi libera Hiriari, 25.000 gazte antzokian parte hartzen, ikusleen %42 hiritik kanpokoak, %25 Eskualdetik kanpokoak, 120 langile eta kultura-gune baten garapena.

Ramón Etxezarreta (Donostiako Udaleko Kultura zinegotzia)



Etxezarretak beste erreferentziak kontuan hartzearen garrantzia azpimarratu zuen, bestelako esperientzien funtzionamendua ikusi eta gure Hiriko kultur ekipamenduei aplikatu ahal izateko. Hortaz, Bates-en azalpena Victoria Eugenia antzokirako erreferentziatzat har dezakegu.

Victoria Eugenia antzokiaren birgaitze-lanak 2001. urte amaieran hasi ziren, eta 2 urte daramatza itxita. Dena dela, datorren urteko udaberrirako erabateko funtzionamenduan egongo dela espero da. 20 milioi euroko inbertsioa egingo da (Udalak 11.754.764,42 € emango ditu eta Ministerioak 7.733.033,56€).

Jatorrizko estetika errespetatu egingo da guztiz antzokiaren birgaitze-lanetan. Dena dela, besaulki-patioa egokitu egingo da (884 aulkiko edukiera), antzeztokia berritu egingo da, antzeztokiaren alde banatan tarteko solairu bat aterako da, aldagelak eta jantzitegiak zabalduko egingo dira, dantzen entsegu-gela berritu egingo da, kontrol- eta proiektzio-kabina berritu egingo da, tailatupeko solairua sortuko da, eraikuntza indarrean den araudira egokitzuz birgaituko da eta berritu egingo da ekipamendu eszenoteknikoa, besteren artean.

Victoria Eugenia berrirako erabilera-proposamenak era askotariko publikoa asebetetzeko moduko programa bat hartu nahi du oinarri, eta formatu handiko antzerkia eskaini nahi du, europar zirkuituetan sartu nahi du, antzerki-joera berriak eskaintzeko. Era berean, Antzerki Feriaren antzoki nagusia izango da, dantza-ikuskizunak eskainiko ditu, formatu handiko eta ertaineko proposamenak eskainiko ditu, baita proposamen klasikoak, neoklasikoak edo garaikideak ere, Ballet Biarritzekiko lankidetzak sakonduko da, musika antzezturako gune egokia izango da (opera, zarzuela...), Zinemaldiko eta Jazzaldiko egoitzarik garrantzitsuenetako bat izango da, euskal musikaren eta bestelako estiloen proposamenik onenak eskainiko ditu, Zinea eta Giza Eskubideak Topaketetako egoitza izango da eta Beldurrezko Zinemaren Asteak ere bertan antolatuko ditu bere saio bereziak.... Honez gain, entsegu-gelak, balio anitzeko aretoak edo lokalak alokatuko dira.

Ikuskizunen emanaldiak osatu behar du Victoria Eugenia antzoki berriaren jarduera nagusia. Hona hemen programazioaren aurreikuspena:

- Antzerkia: 76 emanaldi/39.000 ikusle
- Dantza: 19 emanaldi/ 11.800 ikusle
- Lirika: 8 opera- 8 zarzuela/ 11.200 ikusle
- Musika: 28 emanaldi/ 19.600 ikusle
- Bestelakoak: 46 egun/ 73 emanaldi/ 50.300 ikusle

Hiru dira balizko finantziario-bideak: Kursoal Fundazioa handitzea, Aldundiak eskainitako diru-laguntza, edo beste zenbait instituzioren konturako programazio-multzoak.

Victoria Eugenia antzokirako erabilera-proposamena irekia da, eta doikuntzak eta zuzenketak egin dakizkioke. Beste guneen programazioetan doikuntzak egin beharko dira, eskaintza orokorra koordinaturik egon dadin eta elkarren osagarri izan daitezen.

Mahai-ingurua:



Filgi Claverie-k (Ballet Biarritzeko administratzaile-ordezkariek) baieztatu du Victoria Eugenia antzokiak erakusketarako eta hedapenerako tokia izan behar duela. Donostian dagoeneko bada dantza-programazio bat (Egia Kultur Etxean (Gazteszena), Kursaal...) eta hortaz, Victoria Eugeniako programazioak horien osagarri izan behar du. Dantza Konpainien Europako Sarean gehienak neurri ertainekoak dira, eta hortaz, interesgarria da Victoria Eugeniarako; bertako antzektokiak antzerki-konpainia txiki eta ertainetarako aukera ematen baitu (ez dago formatu handirako adina toki). Dantzaren diziplina "ezezaguna" da publikoarentzat, eta horregatik, Victoria Eugenia sentsibilitate hori pizteko gune izan daiteke. Biarritzen, adibidez, dantzari bultzada handia ematen diote tailerren, entsegu publikoen, ikasleentzako entseguen bidez, besteren artean. Ideia ona da sentsibilizazioa lantzea edo gazteak erakartzea, York-en egiten duten bezala.

Donostian, Zinemaldia, Jazzaldia, Musika Hamabostaldia eta abar egiten badira ere, dantzarako erakusleho bat falta da; urteroko programazioa ez da nahikoa, nolabaiteko jaialdia behar da, dantza sustatzeko eta bultzatzeko une indartsu bat. Ballet Biarritzek bere lankidetzak eskaini du dantza-jaialdi handi bat antolatzeko.

Norka Chiapusok (Donostia Kulturaren Antzerki Unitateko zuzendariak) hiritarrentzako antzoki bat berreskuratzeko proposamena luzatu du Victoria Eugeniarekin. Kulturarekin, handitu egiten da bizi-kalitatea, hazi egiten da ekonomia, eta gizartea

bizkorragoa, irekiagoa eta lehiatsuagoa bilakatzen da. Antzokiaren erabilera-proposamenak eztabaida eta ideietara irekirikoa izan behar du; konplizitateak, ilusioak sortu behar ditu eta abar.

Lehen mailako antzokia izan behar du, goizetik gauera ireki behar ditu ateak eta kalitate-irizpide batzuk hartu behar ditu jarraibidetzat. Taldean lan egitea komeni da, emanaldien programazioa eta kudeaketa definitzeko eta kanpora begira lan egiteko, sarean (Arriaga Antzokiarekin, Euskal Antzokien Sarearekin, Estatuko punta-puntako antzokiekin, Iparraldeko Auzotarren Sarearekin eta abar). Bere ustez, formatu handiko antzerkia itzuliko da, baita formatu handiko ikuskizun eta proposamenak ere.

Halako mundu aldakorrean, kontsumistan, muinera eta egiara itzultzearen aldeko apustua egiten du, berrikuntza, sormena eta publikoaren parte-hartzea bilatuz. Adierazpen-askatasunerako gunea izango da, eta etengabeko harremana eta dialektika mantenduko du hiritarrekin, beraiengandik urrundu gabe. Garai berrietara egokitu behar du, aurrerapenei eta aldaketei beldurrik izan gabe.

Miguel Martínek (Jazzaldiko zuzendariak) Donostiako kultura eszenikoaren elementu nagusitzat jo du Victoria Eugenia. 2007. urtean Antzokia irekitzen denean, itxi zenean ez bezalako hiria aurkituko du: gaur egun ikuskizun eszenikoetara joateko prest dagoen ikusle-kopuru handiagoa dago. Kursoala, esaterako, askotan betetzen da. Hau da, Europar Batasuna ikusleen ikuspegitik suspertutako hiri batera itzuliko da.

Antzokia aktiboki zuzendu eta programatu behar da, lankidetzak sustatu behar dira, ideiak trukatu behar dira, mugaz gaindiko erakunde bat sortu behar da proposamen berrietarako, eta jarduera pedagogikoa indartu behar da (adibidez Musikeneren bidez), besteren artean.

Eduardo Clausen-ek (Donostiako Cultura Musical elkarteko kideak) aipatu du "Cultura Musical" elkartearen iraganeko eredu bati lotzen zaiola eta eredu hori kontuan hartu behar dela eraikuntzarako material gisa. Irabazi asmorik gabeko elkarte honek Victoria Eugeniaren itxiera jasan zuen, eta gaur egun oso programazio xumea gauzatzen du Kursoaleko auditorioaren ganbera-aretoan. Itxieraren ondotik, gainera, garestitu egin zen elkartearen jarduna. Garai berriei egin behar zaie aurre, baina iraganeko material bikainak ere jaso egin behar dira.

Ostirala, maiatzaren 12a:

TABACALERA: Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa (KGNZ)

Josep Ramoneda (CCCB: Bartzelonako Kultura Garaikidearen Zentroko zuzendaria)



CCCB- Bartzelonako Kultura Garaikidearen Zentroa- Tabacalerarako erreferentzia-zentroa da, eta bertako zuzendari Josep Ramonedak kulturaren eragile diren 4 ideia erraz aipatu ditu:

- 1) Kultura lehen mailako ondasun bat dela ulertarazteko ahalegin ezinezkoa
- 2) Hezkuntza mailaren garrantzia (prestakuntzarik ez badago kultur zentroek ez dute arrakasta handirik izango)
- 3) Jakin-mina da ezagutzaren eragilea (beti irekirik, zerbaiten zain egotea arretaz)

- 4) Erakunde publiko bat hiritarrentzat eginikoa da, eta publikoarengana iristeko modua ezagutu behar du, eskaintzaren maila edo kalitatea kaltetu gabe.

Antza denez, gaur egun gainditzen ari garen hainbat zailtasun nabarmendu ditu: "Oporraldi" postmoderno edo kultura aniztasunaren sugarra. Ulertzen hasiak gara gizarteek anitzak izan behar dutela (arrazoi etniko eta erlijiozkoek zatiketa arriskutsua eragiten dute, antzinako Jugoslavian bezala). Bestalde, gizartearen guztizko merkantilizazioa aurki dezakegu (pertsonek baitara ere iritsi dena).

Gaur egun jada ez da arraroa oinarrizko bi ideia aldarrikatzea: 1) emantzipazioaren kontzeptu kantiarra (nork bere kabuz pentsatzeko eta erabakitzeke gaitasuna), eta zentzu honetan, kultur zentzuen egitekoa, jendeari gauzak ikuspegi ezberdinetatik ikus daitezkeela erakusteko. 2) "Pentsatu eta jardun, zuk egiten duzun horrek balio unibertsala balu bezala", erlatibismorik gabe. Kulturak kosmopolitismorantz eramaten gaitu, kultura bakar bat existitzen da: gizateriaren kultura. Bestela 1. eta 2. mailako gizakiak sortzeko arriskua dago. Gainera, gogoratu du erakunde publikoak hiritarrentzat eginik daudela, eta publikoarengana iristea lortu behar dela, eskaintzen denaren maila eta kalitatea kaltetu gabe. Kultur zentroak gune publiko izatearen garrantzia azpimarratu du. Gune horietan, era askotariko jendeak egin baitezake topo itxura batera baldintza berberetan; gune publikoak dituen hiria kultura aniztasunak eraginiko etenaren konponbidea baita.

Zailtasunak kontuan izan behar dira beti; zailtasunak potentzialtasuna dira beti. Kultura humanistak galerak izango lituzke, bilakaerei arretarik jarriko ez balie. Zientziaren gaitasuna sinesgaitza da, baina erantzukizuna eskatu behar da, eskaerak hartu behar dira kontuan, eta Hanna Arendt aipatu du: "Ezin izan liteke, ez garelako egiten ari garen gauzak ulertzeko".

Informazioaren gizartean bizi gara. Oso informazio gutxi izatetik informazio gehiegi izatera igaro gara, eta bata bestea bezain antzua izan daiteke. Horregatik, kultur zentro eta institutu berriek arrastoak eman behar dituzte sarean, orientatzeko eta ez galtzeko. Bigarren arriskua hutsaltasunarena eta axolagabetasunarena da. Kulturaren esparruan hainbat hierarkia dago: gauza onak eta txarrak daude, kalitate handiagoa edo txikiagoa, eta irizpide estetikoak, etikoak eta epistemologikoak mantendu behar dira.

Inmigrazioa fenomeno garrantzitsua da. Globalizazioarekin espazioa txikitu egin da, eta denbora azkartu, hau da, mundua txikiagoa da. Pertsonak ez dira, lehen bezala, toki hutsetara lekualdatzen, hirigune kontzentratuetara baizik. Raval auzoak, CCCB kokatzen den tokiak, 80.000 biztanle ditu, eta %2 etorkinetik %55era igaro da 10 urtetan.

Bestalde, gero eta gizabanako gehiago eta gizarte gutxiago dago. Axolagabetasuna eta isolamendua ari dira nagusitzen, eta Margaret Thatcher-en iragarpen izugarria betetzen ari da: "ez dago gizarterik, gizabanakoak bakarrik". Gainera, merkatua gure baitaraino sartu da, merkantilizatutako giza psikologia batez mintza gaitzke: onena lortzeko lehia bizia, baina frustrazio ziurra dakarrena.

Zergatik interesatzen zaizkie horrenbeste kultur zentroak erakunde publikoei? Esaten da ez dela manifestaziorik egiten kultur zentro bat ixten denean, baina ez da ahaztu behar kulturaren botere sinbolikoa... edozein agintarik kultur kromoren bat erakusteko beharra sentitzen du.

Ramonedaren iritziz, kultur zentro baten irizpidea ez datza jendez betetzean (halere, hobe betetzen bada); merkataritza-, industria- edo turismo-alderdiaren gaintik jarri behar da kalitatearen irizpidea. CCCB kultur zentroa da, eta ez du inoiz turisten araberako programaziorik antolatuko. Gaur egun, 10 bisitaritatik 6'5 Bartzelonako metropoli-areakoak dira, 2,5 atzerritarrak eta katalan edo espainiar bat.

Politikariek kultur ahaleginak egin behar izaten dituzte eskaerari erantzuteko. Eskaintza interesgarriak izaten direnean, jendea hurbildu egiten da. Eskaerak zorrotzagoa izan beharko luke, jendeak kalitatezko eskaintzaren aldeko kritika, ahalegin edo presio gehiago egin beharko luke.

Arlo publikoaren kudeaketaz ari garenean, legitimotasun demokratikoa errespetatu beharko litzateke lehenik eta behin. Ramonedak uste du kargutik kentzeko eskubidea dutela, baina ezin dutela bere programazioan esku hartu CCCBko zuzendari den bitartean. Erlazio hau hasieratik itundu behar da, adierazpen-askatasunaren errespetuarekin batera.

Berhard Serexhe (Karlsruhe-ko Media Museum ZKM-eko komunikazio-zuzendaria)



Serexhe-k azaldu du Karlsruhe-ko Arte eta Komunikabideen Zentroaren fundazioa 1988. urtean sortu zela, eta antzinako industria-eraikuntza bat hartu zuela kokalekutzat. ZKM delakoa Baden-Wurtemberg (Stuttgart) eskualdeko gobernuaren eta Karlsruhe-eko Udalaren ekimena da.

Karlsruhe kultur hiri baten adibidea da, eta ZKM "erabiltzaile sortzailearen bizi-estilo berrirako" laborategi gisa sortu zen. Funtsezkoa izan zen hiritarrei proiektua behar bezala azaltzea, eta horretarako, hainbat jarduera gauzatu zen: Multimediale, kontzertuak, emanaldiak eta abar.

ZKMren helburua ikerketa, kultura, hezkuntza eta artearen zein komunikabideen azterketa sustatzea da, irudiaren, musikaren zein hitzaren esparruan eta horien arteko erlazioan.

Ondoko zereginak betetzen ditu:

- Ikerketa eta garapena: Laborategi eta tailer esperimentalak, zientzialariek eta artistek komunikabide berrietako arte-aplikazioen teoria eta praktika gauzatu ahal izateko.

- Erakusketak eta emanaldiak: baliabideak eskaini behar dizkiote publikoari komunikabideekiko arte-loturak aurkitzeko, hezteko, laborategietako ikerketen emaitzak jende gehiagori aurkezteko, arte- eta komunikazio-molde ezberdinak lotzeko...
- Bildumak eta artxiboa: Arteari eta teknologiarri loturiko lanak (literatura, bideoak, audioak, arte digitaleko liburutegia...), artisten, zientzialarien eta hiritarren eskura, nazioko zein nazioarteko beste datu-baseekin lotuta.

ZKMk barne hartzen ditu: arte garaikideko museoa, liburutegia, zaharkitutako bideo-sistemetarako laborategia, argitalpen-programa, komunikazio-museoa, jarduera- eta emanaldi-saila, harreman publikoetarako saila, ikus-entzunezkoen institutua, musika eta akustikarako institutua, oinarrizko ikerketarako institutua, komunikabideetarako eta industriarako institutua, zinema-institutua eta abar.

Amaitzeko hainbat gogoeta egin du: nola handitu bisitari-kopurua profil maila altua mantenduz? Nola biziraun kultura aldakor batean? Kultura ekonomiaren oinarri eta eragilea da... bere aurkezpenari amaiera emateko Motto aipatu du: "*We can never have culture but we can do culture*" (inoiz ez dugu kulturarik eduki ahal izango, baina kultura egin dezakegu).

Josean Muñoz (KGNZ- Kultura Garaikidearen Nazioarteko Zentroa)



Josean Muñozek (KGNZko zuzendariak) *Tabacalera Proiektua* azaldu du. Tabacalera XXI. mendean sortutako proiektua da, Interneten aroan sortutakoa, eta ez da komunikaziorako baliabide soila, kulturaren aldaketa baitakar berekin. Internetek egile izateko eta interaktiboki parte hartzeko aukera eskaintzen digu guztioi, eta sortuko dugun zentroak logika horri jarraitu behar dio, mundu digital berri honi itzulia emanaz.


Helburua ez da pilatzea, mantentzea edo gordetzea; hedatzea, sarean lan egitea, parte-hartzea sustatzea... baizik. Hona hemen jarduteko esparru batzuk: ekoizpena, gogoeta, erakusketa, prestakuntza eta artxiboa-hedapena (web).

Eraikuntzak kokaleku ona du, eta bi irteera ditu: bata langileentzat, eta besteak tren-geltokiko zamalanetarako nasara ematen du. Gaur egun, parke publiko bat du inguruan (Kristina-Enea) eta Tabacalera bera ere publikoa da dagoeneko.

KGNZri buruz mintzatzerakoan ez gara Donostiaz bakarrik ari, Gipuzkoa edo "euskalhiria" bera ere barne hartzen baititu. Hizpide hartzen duguna "hirien hiria" da, bitarteko hiria, mugakidea, etengabe mugitzen ari dena eta kultur aberastasun handikoa: Koldo Mitxelena, Donostia Kulturaren Zinema Unitatea, Arteleku, Oteiza Museoa, Txillida-Leku...

Gainera, bi hizkuntza ditugu abiapuntutzat. Euskara ez da inolako *handicap-a* nazioarteko zentro batentzat, elebitasuna abantaila baita (eta bizikidetza-eskola, Anjel Lertxundik dion bezala): bi hizkuntzek bi mapa ezberdin adierazten dizkigute (euskarak iparraldeko herrialdeetara hurbiltzen gaitu gehiago, kultura mantentzeko lanean diharduten populazio gutxiko herrialdeetara, eta gaztelaniak Espainiarako eta Latinoamerikarako bidea irekitzen digu). Bi mapa, bi ate edukitzea abantaila da beti. Zentzu honetan, Tabacaleran jorratzeko balizko gai garrantzitsuak, zeharkako gai-esparru baten baitan, honakoak dira: hiria, hizkuntza eta gorputza (gizakia, pertsona).

Ramonedak bezala, "plazaren" kontzeptua gogorarazi du; gune publikoa, bizitzarako gunea, eta jende guztia, duen maila kulturala duela ere, egon daitekeen tokia. Berrikuntza sustatuko duen proiektu bat garatu behar da, baina betiere guztiontzako "plaza" izango denarekin loturan (barra bertikaletan igoz eta jaitsiz, batzuetan ezagutzaile gisa eta besteetan ez-ezagutzaile gisa).



Tabacalerak baliabideak partekatzeko lantegia izan behar du, berriz ordenatu beharreko gune bizia. Gogoeta egiten, pentsatzen eta eztabaidatzen jarraitu behar da. Kulturarako, ideietarako eta sorkuntzarako lantegia izan behar du, diziplina anitzeko zentroa, eta honako jarduerak jasoko dituena, besteren artean: irudia eta teknologia berriak, industria eta teknologia berriak, arte garaikidea, argazkiak, COFF, zinema, bideoa, musika, telebista, euskal filmoteka, kultur informaziorako gunea, kulturen arteko topaketa, liburutegia, zerbitzuak, aisialdia eta abar.

Industria ere ez da kulturatik kanpo utzi behar. Komeni da erakundeak zein enpresak parte-hartzaile izatea. Azken hauek dirua jarri beharko dute, baina horretarako proiektuaren baitan egon behar dute. Gipuzkoan I+Gk garrantzia du, eta arlo hau izan behar du oinarri eraikuntzak.

Une hauetan, arloz arlo ari dira lanean egun dagoena optimizatzeko. Aurten ez da erakusketarik egingo, Tabacalera beste zerbait izatea lortu nahi baita, konplexuagoa, mugikorragoa.... eta gauzatzen den bitartean plazaren kontzeptuari helduko diogu.

Mahai-ingurua:



Kepa Kortak (Donostiako Plan Estrategikoaren zuzendariak eta KGNZ –Tabacalerako aditu-batzordeko kideak) azpimarratu du Tabacalera zentroa bizi-kalitate hobea lortzera bideratutako ekintzen eta baldintzen arabera gauzatu behar dela. Era berean, aipatu du KGNZ kokatzen den ingurune metropolitarraren testuinguruan kultur espezializazio garrantzitsua dagoela, hainbat zentro teknologiko dagoela, gazteek prestakuntza maila handia dutela eta abar.

Proiektuaren testuingurua zehaztu ostean, beronen sorrera hartu du hizpide: 2001. urtean hitzarmena sinatu zuten Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta

Donostiako Udalak. 2002. urtean Manifesta 5 Arte Garaikidearen Bienala antolatu zen, oso bide zailari ekiteko ildoan, eta 2003-2005 urteen artean eredu zehazten hasi zen. 2006. urtean, berriz, zuzendari bat izendatu zen, baita hasierako lan-talde bat ere.

Tabacalera kultura bisuala garatzeko eta teknologia berriak topatzeko gune gisa sortu da, baita Euskal Kulturaren garapena sustatzeko ere, Tokikoaren eta Orokorraren arteko etengabeko eztabaidari bide emanez. Gune berezia izan behar du, nazioarteko proiektioarekin, osagarria eta anitza, kulturen arteko topagune eta solastoki, kulturaren ekoizpenarekin eta hedapenarekin antolatua, diziplina anitzekoa, mintzaira berriak bilatuko dituen, I+G+B sustatuko duena teknologia berrien kultur aplikazioetan, iraunkorra (publikoa eta pribatua elkartuz), hiritarrek irekia eta hiritarrek gozatua, eta kultur esparruko jardueren integrazioa eta harremana sustatuko duena (orain artekoak zein berriak).

“Plaza” izan behar du; aisialdia, harremanak, erakusketak, eztabaida, prestakuntza, komunikazioa, topaketak, trukea eta sorkuntza ahalbidetuko dituen. Hona hemen bertan izango den hainbat proiektu: Argazkiaren Nazioarteko Zentroa, Telebistaren Institutua, Institutu Media, Hizkuntzaren Institutua, Sormenaren Institutua, Gastronomia eta Elikadura Ikerketarako Institutua, Kultur Proiektuen Lantegia, Diseinuaren eta eguneroko bizitzaren gaineko ikerketarako plataforma edo Hiriaren Europar Institutua. Gainera, hainbat proiektu azpimarratuko ditu, adibidez: Arteleku, Euskal Filmoteka, KM, Aranzadi, Eusko Ikaskuntza, Elhuyar, Kultur Etxeak, Zinema eta Bideo Eskola, Goi Mailako Musika Kontserbatorioa, Teknologia Parkea (MediaX, EITB) eta abar.

Amaitzeko esan du Tabacalerak akordioaren beharra duela etorkizunerako, azpiegitura, proiektuaren sozializazioa, nazioarteko sareak, jarduerak, hirigintza- eta arkitektura-proiektua eta zentroaren zehaztapena kontuan hartuz.

Mikel Lejarzak (Grupo Árbol-eko kontseilari-ordezkariek) bere ikuspegiaren berri eman du, telebista-aditu gisa. Telebistak aisialdia demokratizatzen jakin zuen beste komunikabideek ez bezala, eta mintzaira propioa sortu zuen.

Hemen da, dagoeneko, komunikazioaren edo digitalizazioaren gizartea, eta telebistak eragile-lana egin dezake mintzaira digital berria eskatzen duten hedabide berrien ahalmen sortzailea sustatzeko. Tabacalera aparteko proiektua da, eta eragile aktiboa izan behar du aro digitalak eskakizun dituen mintzaira berri hauen garapenean. Erakusketek oso harrera ona dute gure ingurunean, baina orain, ekoizpena eta sorkuntza jarri behar dira epizentroan.

Gogoratu du telebista aspergarria izan ezin daitekeen bezalaxe kultur proiektu bat ere ezin daitekeela aspergarria izan. Amaitzeko, honako gogoeta egin du: “abangoardien funtsezko helburua pertsonen eguneroko bizitzan sartzea da”.

Mahai-inguruari amaiera emateko, **Lourdes Fernándezek** (ARCoko zuzendariak) hartu du hitza, eta berak zuzendu zuen Manifesta 5 Bienalari buruz aritu da, esanez bide zail bati eman zitzaiola hasiera haren bidez, Kepa Kortak aipatu duen bezala. Bestalde, ARCOren lanerako ildo batzuk aipatu ditu; Tabacalerak kontuan hartu beharko lituzkeenak. Banaketarako, merkaturako, arterako eta bideosorkuntzarako molde berrien garrantzia ere azpimarratu du, aipatuz KGNZ-Tabacaleran kontuan hartu beharko lirатеkeela.

SAN TELMO MUSEOAREN PROIEKTU ARKITEKTONIKOA

Fuensanta Nieto (Nieto Sobejano arkitektura-estudiokoa):



Fuensanta Nietok San Telmo Museoa birgaitzeko eta zabaltzeko proiektu arkitektonikoa aurkeztu du. Aurkezpenari hasiera emateko, bere Estudioan ondare historikoei loturik gauzatutako hainbat proiektu azaldu ditu: Madinat Al Zahra museo arkeologikoa (Kordoba), Eskultura Museoa zabaltzea eta birgaitzea (Valladolid) edo Arte Museoa (Moritzburg, Alemania). Horietan garbi ikus daiteke arkitektoek landuko duten tokia, eraikina eta ingurua ulertzeko eginiko ahalegina.

San Telmoren kasuan, proiektua kokaleku txundigarri hori indartzeko helburuz proposatu da. San Telmo, izan ere, alde zaharraren bazter batean kokaturik dago, hiriaren eta naturaren paisaiak bat egiten duten tokian. Urgull Mendiaren eustorman jarri dute esku hartzeko muga, eta 5000 metro karratu zabaldu ahal izateko, 1930. urtean eraikinari erantsitako zatiaren goialdeko zatia kentzea erabaki da, bi harresi begetal sortzeko. Harresi hauek eraikuntza historikotik zertxobait bereizita, mendirako iraganbide dira, eta bi pabilioi gordetzen dituzte barruan.



Era berean, arkitektura eta arte plastikoak lotu nahi izan dira, Leopoldo Ferrán eta Agustina Otero artisten lankidetzarekin. Guztien artean, harresiak egin dituzte, galdaketa-paneletan, modelatuak eta zulatuak, Pasealeku Berriko arroken zuloen itxura emanaz eta goroldioz estalita. Galdaketa-panel hauek fatxadan kokatuko dira, barnean behar diren argiztapen-baldintzen arabera kokatuta.

Zuloaga plazatik, erakusketa iraunkorrak izango dituen antzinako eraikinera sartu ahal izango da, baita aldi baterako erakusketak izango dituen pabiloi berrira ere.